



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko
Sailburuordetza
Natura Ondare eta Klima Aldaketa
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad
Ambiental
Dirección Patrimonio Natural y Cambio
Climático

NATURA 2000 SAREKO EBRO IBAIA/RÍO EBRO (ES2110008) EREMUA HANDITZEKO ETA KONTSERBAZIO-HELBURUAK ETA -NEURRIAK EGUNERATZEKO ETA EREMU ZABALDURA EGOKITZEKO DEKRETU-PROIEKTUA

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Natura 2000 Sareko Ebro ibaia/Río Ebro (ES2110008) KBE eremua handitzeko dekretu-proiektua egiten hasteko asmoa du, eremu horretan Jugalez ibaia sartuta. Hori guztia, egungo KBEa baino lurralde zabalago bateko biodibertsitatea babesteko eta, ondorioz, eremuan aplikatu beharreko kontserbazio-helburuak eta -neurriak eremu zabaldura egokitzeke.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikularen 1. apartatuak xedatzen duenez, xedapen orokorraren izapidetza sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak kontsulta publikoan eskatuko du, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, herritarren iritzia.

Bestalde, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikularen 3. apartatuak adierazten du aurretiazko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak bete ahal izango duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita. Honako alderdi hauei buruzkoa izango da aurretiazko kontsulta hori:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak

Aurrekoa betez, eta araua lantzeari ekin aurretik, honen bidez gonbidatzen ditugu herritarrek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten martxoaren 27tik apirilaren 25era arteko epean.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.

Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaria,
ADOLFO URIARTE VILLALBA
(Elektronikoki sinatua)



A) EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK:

Kontseiluaren 92/43/EEE Direktiba, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basafauna eta basafiora kontserbatzeko buruzkoa (Habitatari buruzko Direktiba), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147/EE Direktiba, 2009ko azaroaren 30ekoa, basahagaztiak kontserbatzeko buruzkoa (Hagaztiari buruzko Direktiba) aplikatuz, Natura 2000 Sarea sortu zen. Sare hori da Europako erakundeek eta herritarrek Europako lurralde osoan biodibertsitatea babesteko egiten duten apustu nagusia, eta haren helburua da biodibertsitateari eustea, basafauna eta basafiora nahiz Europar Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko esparru komun bat zehaztuz, direktiba horien eransketan ezarrita.

Ebro ibaia Natura 2000 Europako Sare Ekologikoaren Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) izendatu zuten 2000ko azaroan, eta Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zuten martxoaren 17ko 35/2015 Dekretuaren bidez, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu baitziren (<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/05/1501943e.pdf>). Martxoaren 17ko 35/2015 Dekretuaren bidez, naturagune babestua kontserbatzeko helburuak eta neurriak sartu zirenean, garai hartan indarrean zegoen Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22. artikulua bete zen (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori). Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 10eko 122/2015 Erabakiaren bidez, kudeaketa-jarraibideak eta -neurriak behin betiko onartu ziren, Arabako Lurralde Historikoko ibaietan bost kontserbazio bereziko eremutako habitatak eta espezieen aldaketak kontserbatzeko eta hondatzea saihesteko.

Ebro ibaia/Río Ebro KBEa handitzeko arrazoiari jatorria Arabako Batzar Nagusietan dago. 2020ko azaroaren 18an egindako osoko bilkuran, 72/2020 mozioa onartu zuten, Jugalez edo Inglares Natura 2000 Sareko ibai izendatzearen alde, eta Arabako Foru Aldundiari eskatu zioten, gehienez ere hiru hilabeteko epean, Jugalez edo Inglares ibaiaren ibilbide osoa Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu izenda zedin beharrezko administrazio-urratsak hasteko. Ildo horretan, 2022ko otsailaren 3an, Eusko Jaurlaritzak Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailaren eskaera formala jaso zuen, Jugalez edo Inglares ibaia Natura 2000 Sarean sartzeko, mugaketa-proposamena jasotzen duen mapa batekin batera.

B) ARAUA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA:

2020ko maiatzaren 20an, onartu zen “Biodibertsitatearen Europako Estrategia 2030. Natura gure bizitzetan itzultzea (COM (2020) 380 azkena)”. Europar Batasunean natura babesteko eta berreskuratzeko konpromiso nagusien artean, honako hauek daude: gutxienez luraren eta itsasoaren azaleraren % 30 babestea eta lehorreko eta itsasoko azaleraren % 10 hertsiki babestea.

Euskal Autonomia Erkidegoak 165.917,55 ha ditu gaur egun Natura 2000 Sarean sartuta, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaren azaleraren % 22,94. Alde horretatik, Ebro ibaia/Río Ebro (ES2110008) KBEa handitzeak lagundu ahal izango du biodibertsitatea kontserbatzeko Europako konpromisoak betetzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko legerian dauden naturagune babestuen artean, lehendik Natura 2000 Sareko eremua denaren esparrua zabaltzea erabaki da, honako arrazoi hauengatik:

- Biodibertsitate-balioei garrantzi handiagoa emateko, Natura 2000 Sareak –elementurik baztertzen ez badu ere– hobeto fokalizatzen ditu babestu beharreko elementuak: ibai-inguruneari lotutako habitatak eta Batasunaren edo eskualdearen intereseko basafloa eta basafaunako espezieak.
- Landa-garapena bateragarri egiten du eta hobeto lotzen du biodibertsitatearen kontserbazioari egiten dion ekarpenarekin.
- Europa Batasuneko finantzaketak, lehentasunez, Natura 2000 Sarean sartutako espazioak hartzen ditu kontuan, eta ez beste babes-figura batzuk.
- Ebro ibaia/Río Ebro KBEa (ES2110008) Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak babesteko helburuarekin proposatu zen, horiek ere garrantzitsuak baitira Natura 2000 Sarearen koherentziari dagokionez, ibai-korridorearen lotura-funtzioa betetzen baitu. Hori zabaltzeak helburu hori hobeto betetzea ahalbidetuko du.
- Lotura ekologikoa hobetzeko eta ibai-korridore ekologiko gisa laguntzeko duen garrantziagatik.

C) ARAUAREN HELBURUAK:

- 2030erako Biodibertsitatearen Europako Estrategiaren konpromisoa betetzen laguntzea, hau da, babestutako azalera % 30era handitzea eta lurraldearen % 10 hertsiki babestea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ur gezako eta ur-bazterreko uretako habitaten babesa hobetzea, horien azalera handiagoa babestuz. Handitze-eremuetan ibaiertzeko basoa dago irudikatuta, eta ingurune hidrikoarekin lotura duten hain ohikoak ez diren beste habitat batzuk sartzen dira, hala nola erromerala eta larre xerofitoak.
- Lurraldeko konektibitate ekologikoa hobetzen eta Euskal Autonomia Erkidegoan azpiegitura berdea ezartzen laguntzea.
- Ur gezako uretako ekosistemekin lotutako basa-faunako espezieak hobeto kontserbatzen laguntzea.

D) BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK:

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da dekretu-proiektua egitea, eta ezin da bestelako irtenbiderik ikusi.